

ELIKAGAI BERRIAK edo NOVEL FOOD

ZERI DEITZEN DIOGU ELIKAGAI BERRIA?

Elikagai berrizat jotzen dira Autonomia Erkidegoan 1997ko maiatzaren 15era bitartean giza kontsumorako ia erabili ez den edozein elikagai edo osagai. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 285/97 Araudiak, 1997ko urtarrilaren 27koak, zehazten du zeintzuk diren elikagai edo elikagaietako osagai berriak baimentzeko prozedurak.

ZUZENEAN APLIKATU BEHARREKO ARAUDI ERKIDEA

- 258/97/EE Araudia, 1997ko urtarrilaren 27koa, elikagai eta elikagaietako osagai berriei buruzkoa.
- 97/618/EE Gomendioa, 1997ko uztailaren 27koa, elikagai eta elikagaietako osagai berriak merkaturatzeko eskariak onesteko zientzia aldeei eta beharrezko informazio aurkezteari buruzkoa; eta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 258/97/EE Araudiarekin bat, informazio hori aurkezteari eta hasierako balioespenaren gaineko txostenak egiteari buruzkoa.
- 1852/2001/EE Araudia, 2001eko irailaren 20koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 258/97/EE Araudiarekin bat zenbait informazio argitaratzeko eta emandako informazioa babesteko arau zehatzak ezartzen dituena.
- Batzordearen 608/2004/EE Araudia, 2004ko martxoaren 31koa, gehitutako fitosterol, fitosterol ester, fitostanol edo fitostanol esterak dituzten elikagai eta elikagaietako osagaien etiketatzeari buruzkoa Reglamento (CE) n° 258/97, de 27 de Enero de 1997, sobre nuevos alimentos y nuevos ingredientes alimentarios

“ELIKAGAI BERRIA” KONTZEPTUA

Elikagai naturalak prozesatzeak eta elika-katean elikagai iturri berriak sartzekak sorrarazi du NOVEL FOOD kontzeptu teorikoa eta nazioarteko mailan erabiltzen da 258/97 Araudia indarrean jarri zenetik: NOVEL FOOD hitzak akademikoa izateari utzi eta legezko esanahia hartu zuen.

Zenbait produktuk osaera edo jarduera fisiologikoa dute, eta horiek nahasketa sor dezakete elikagaiak edo osagaiak ELIKAGAI BERRItzat sailkatzean. Horretarako, honako hauek gauzatu beharko dira:

- Batetik, ziurtatu egin beharko da, nahiz eta kontsumitu, elikagaia dela; izan ere, zenbaitetan botiken, kosmetikoen eta elikagaien arteko muga ez dago ondo zehaztuta.
- Neurri berean, BERRIAK ote diren zehaztu beharko da. Honako honen arabera hartuko da elikagai bat berrizat:
 - Ez da aintzat hartuko elikagai enpresen etengabeko hobekuntza programen ondorio diren hobekuntzak (osasun hobekuntza, osaera hobekuntza edo hobekuntza organoleptikoa).
 - Ez da aintzat hartuko aurrez prestatutako produktuen sorrera; izan ere, osaera anitz aurki daitezke salgai eta ezin da ziurtatu osagai konbinazio horiek ez direla 1997a baino lehen kontsumitu.
 - Aintzat hartuko dira, berriz, tradizioan elikagaiena izan ez den egitura molekularren ingestak dakartzan aldaketak, hau da, egitura molekular horiek izan daitezke sintesi berri baten bidez lortutakoak, edo elikagaien kontsumoaren erabileran historia duten egituren bidez aldatutakoak. Egoera hori arriskutsua izan liteke kontsumitzaileentzat eta Europako agintek kontrolatzea hartu dute helburu.

Nola bereiz daiteke izaera hori elikagai produktu jakin batean? Produktu batek NOVEL izaera izateko, honako kategoria hauetako batean sartu beharko da:

1. ITURRI BERRI bat osatu behar du edo iturri berri batetik eratorritakoa izan behar du, hau da, animalia landare edo mikrobiologia espezie berria. Puntu honetan, berriz zehaztu behar da zer den espeziea eta zeinek ziurtatu behar duen taxonomia ikuspegitik espeziatzen hartu ote daitekeen. Bereiztu egin behar dira, batetik, eraldaketa genomikoaren prozedurak; eta, bestetik, ohiko genetika hobekuntza.
2. PROZESU BERRI batetik eratorria izan beharko du, hau da, ohiko elikagai iturrietan teknologia berriak erabiltzeak (elikagaien arloan), ezagunak ez izateagatik soilik, iturrien egitura alda lezake eta kontsumitzailearentzat arriskua sorrarazi.
3. OHIKO ELIKAGAI ITURRI BATEAN OHIKO PROZEDURA BERRIZ ERABILTZEA. Ohiko elikagaietatik lortzen dira elikagaien eraldaketan normalean aplikatu izan den prozesu baten bidez; baina, ez dira iturri jakinean aplikatu:
 - Metodoa berriz erabiltzeak ohikoa ez den produktua sorrarazten badu, produktu hori elikagai berrizat hartuko da.

- Metodoa berriz erabiltzeak ohiko produktuaren mota bereko (ez du zertan berdina izan) produktua sorrarazten badu, produktu hori EZ DA ELIKAGAI BERRITZAT JOKO.
- Prozesatu aurretik eta ondoren elikagai bat berdina edo antzekoa dela egiaztatzeko nazioarteko mailan onetsitako elikagai kategorietara jo ahal da.

Zalantzarik badago, edozein estatu kideetako elikagaien segurtasunerako agentziei egin diezaieke kontsulta.

Edozein agentziak horretarako erabiltzen duten protokoloaz gain, Europako eremuan elikagai baten benetako kontsumoaren historia ziurtatzeko, estatu kide bakoitzeko nazio mailako ordezkari talde bat aldian-aldian elkartzeko dira Bruselan elikagai jakinei buruzko informazio trukatzeko, historiari, Europa Batasuneko eremu murriztuetako kontsumoaren beste alderdi batzuei, segurtasunari edo toki mailan aplikatu daitezkeen marko legalari buruz.

Azkenik, Erika-katearen eta Animalien Osasunaren Batzorde Iraunkorren (CPCASA) eztabaidatzen dira produktu bat merkaturatzea baimentzeko eskariei buruzko espedienteak. Espediente horiek izapidetzea edozein estatu kideetan baimentzen da, eta horietan ezartzen dira inplizituko oinarriak 258/97 Araudia jurisprudentzia modura interpretatzeko.

ESKATZEKO ETA BAIMENTZEKO PROZEDURA

BAIMENTZEKO PROZEDURAREN FASEAK

1. HASIERAKO BALIOESPENA.
2. IRUZKINAK ESKATZEA (oharrak eta oztopoak) estatu kideei.
3. FINKATZE PROZESUA: eskatzaileen, Batzordearen eta estatu kideen arteko informazio osagarria trukatzeko.
4. BALIOESPEN OSAGARRIA, eskatzaileak informazioa eman badu, lehenik espedientean eta ondoren finkatze prozesuan, estatu kideek izan ditzaketan zalantzak argitzeko. Gaur egun, INFORMAZIO OSAGARRIA ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO EUROPAKO AGENTZIAKO (EFSA) Nutrizioaren Panelak gauzatzen du Batzordeak edo estatu kideek hala eskatuta. Horretarako, eskaria aurkeztu eta aztertu ondoren, beharrezkotzat jo beharko da Europako Agentziak irizpena eman behar duela.
5. BAIMENTZEKO ERABAKIAREN ZIRRIBORROA egitea.

6. Baimentzeko erabakia argitaratzea eta PROZEDURARI AMAIERA EMATEA.

FUNTSEZKO BALIOKIDETASUNAREN PROZEDURAZ ONETSITAKO ELIKAGAI BERRIAK

258/1997 Araudiak, halaber, aurreikusten du erraztutako prozedura. Aurretik adierazitako ohiko prozeduraren salbuespena da eta FUNTSEZKO BALIOKIDETASUNAREN JAKINARAZPENA EDO/ETA ESKARIA du izena.

Honako elikagai edota elikagaietako osagaiei aplikatuko zaie:

- Mikroorganismoak, ondoak, algak badira edo horietatik eratortzen badira.
- Ohikoak ez diren metodoen bidez ugaldutako animaliak eta landareak badira edo horietatik eratortzen badira.
- Nutrizio balioa, metabolismoa edo substantzia kaltegarrien presentzia eragiten duten prozedura berrien bidez eskuratutako badira.

Horiek, gainera, egun existitzen diren elikagai edota osagaien funtsezko baliokideak izan behar dute osaerari, nutrizio balioari, metabolismoari, erabilerari eta substantzia kaltegarrien presentziari dagokionez. Hori guztia kontuan hartuz bai eskura dauden eta oro har onartutako zientzia datuak, bai estatu kideetan balioespina egiteko eskumena duten organismoetako batek emandako irizpena.